

## QUERCUS ESPEZIEEN EUSKAL IZENAK

Gasteizen, 2008-ko irailaren 22an

Manuel M. Ruiz Urrestarazu

Hizkuntza bizian eta toponimian ikus dezakegunez *Quercus* espezie diferentei deitzeko hiru izen berezi dira euskaraz: **haritz**, **ametz** eta **arte**.

**Arte** izena espezifikoa da eta *Quercus ilex* L. espezieari ematen zaio (erdaraz «encina» / «chêne vert», «chêne-faux houx», «yeuse»). *Quercus suber* L. («alcornoque», «encina corchera» / «chêne-liège») leku gutxitan agertzen da Euskal Herrian eta **artearen** luzapenez hartzen da euskaraz **artelatz** izenpean (artearen eta artelatzaren hostoak antzekoak baitira eta enborearen azala lodia da oso); **arkamurka** izena ere erabilia izan da *Quercus suber*-i deitzeko orduan. *Quercus coccifera* L. («coscoja» / «chêne-kermès») arraroa da gaur eremu euskaldunetan eta **abaritz**, **txapar** izenekin hartuta dago Eusko Jaurlaritzak eta Araba, Bizkai eta Gipuzkoako Diputazioek 1995ean publikatu zuten *Nekazaritza Hiztegia*-n; hala eta ere **abaritz** izen horri asmatua izatea derizkiot.

Eta goazen orain erdaraz «roble» edo «chêne» deritzaten espezie arrunt horiekin. Bi izen diferente erabiltzen dira euskaraz espezie horiei deitzeko: **haritz** eta **ametz**. **Haritz**, bere bariante **haretx** eta **haritx**-ekin, eta **ametz**, gehi **ezkametz** eremu txikiko izen hibridoa.

Euskara galtzear edo galduta dagoen Hego Euskal Herriko lurraldeetan, *Quercus faginea* Lamk. («roble quejigo» / «chêne du Portugal»), *Quercus humilis* Mill. («roble pubescente» / «chêne pubescent») edo horien hibridoak ageri diren tokietan, toponimiaren laguntza ezin bestekoa zaigu, arbola horiei zein izen ematen zitzaien jakiteko. Toponimia hori guztiz adierazgarria da kasu hauetan.

Hona hemen toponimian aurki ditzakegun etsenplu batzuk, den-denak *Quercus faginea* Lamk., *Quercus humilis* Mill. edo horien hibridoak ager litezkeen lekuetan:

### Araba

Arestuia, Izartza

Aretxaburua, Luku

Aretxagazabal, Andagoia-Abezia

Aretxerreta, Manurga  
 Aritxueta, Garaio  
 Aritzagana, Gereña  
 Arizmendi, Lermenda  
 Ariznabarra, Gasteiz  
 Ariznabarreta, Gasteiz  
 Arizpidea, Margarita  
 Ezkanda, Lagran  
 Ezkantxo, Okina  
 Zuatzaretx, Eribe-Okoizta-Zestafe

### **Nafarroa**

Aretxipi, Gendulain  
 Aristubeltza, basazain-etxe, Urbasa  
 Aritz, herri, Izako zendea  
 Aritzabalondoa, Asterain  
 Aritzala, herri, Deierrri ibarra  
 Aritzaleta, herri, Deierrri ibarra  
 Aritzaleta, eremu, Untzitibar  
 Aritzarte, mendi, Erroibar  
 Aritzgaña, mendi, Urraulgoiti  
 Arizdia, mendi, Olaibar  
 Arizdia, mendi, Jaitz edo Janiz (Oro)  
 Arizdia, Aratzuri (Oltza)  
 Arizdia, Bidaurreta-Zabaltza (Etxauri)  
 Arizko, Aranguren  
 Arizmendi, etxe, Aratzuri (Oltza)  
 Ariztarai, eremu, Gulia  
 Ariztregi, herri, Xulapain  
 Ariztu, herri, Urraulgoiti  
 Arizturena, etxe, Elkoatz (Urraulgoiti)  
 Armendaritz, etxe, Obanos

### **Errioxa**

Aritza, La Estrella monastegiaren antzinako izena, San Asensio  
 Aricia, Valgañón  
 Aricha, Ojacastró  
 Arisabel (?), Briones  
 Erizola, erreka, Oja ibaiaren sistemakoa  
 Laristizabal, Santurdejo  
 Saristizabal, Santurdejo

## Burgos

Arechas, Mena harana  
 Areche, Bortedo (Mena)  
 Aricha, Avellanosa de Rioja

## Oska

Areceta, antzinako monastegi, Bergasa

## Zaragoza

Ariza, hiri

Izen bilketa horretan ikus dezakegunez, toponimiaren testigantza **haritz** izenaren alde agertzen zaigu.

**Ezkametz** izen berezia. Xabier Irigarai ingeniari ikertzaileak aurkitu zuen izen bitxi hori bere landare-izenen ikerketetan Nafarroako Anue, Imotz eta Odieta ibarretako zenbait tokitan. Orain direla 15 bat urte Xabier Irigarai bisitatu nuen Ibaetako bere bulegoan eta Irigaraik berak hartutako izenen fitxak atsegin osoz erakutsi zizkidan eta ziurtatu zidanez **ezkametz** izen hori beti erabiltzen zen *Quercus faginea* Lamk.-eko arbolei deitzeko edo agian espezie horren barianteei deitzeko. Aipatutako nafar ibar horietan taxonimia problema badago, hor agertzen dira *Quercus robur* L. («roble pedunculado» / «chêne pédonculé») eta *Quercus petraea* (Matts.) Liebl. («roble de fruto sentado» / «chêne-rouvre») espezieak, haritz haritzak dei genitzakeena, *Quercus pyrenaica* Willd. («roble tocorno, rebollo o marajo» / «chêne tauzin»), ametz ametza izango litzakeena eta azkenean *Quercus faginea* Lamk. eta *Quercus humilis* Mill. eta espezie horien guztien hibridoak.

Xabier Irigarairen fitxetan soinu bariante hauekin agertzen zen **ezkametz** izena:

<b>ezkametz</b>	Gaskue (Odieta)
<b>eskametz(a)</b>	Etxaleku (Imotz) Oskotz (Imotz) Eraso (Imotz)
<b>eskametz(a)</b>	Muzkitz (Imotz) Etxaide (Anue)
<b>erkametz(a)</b>	Zarrantz (Imotz)
<b>erkamets(a)</b>	Urritza (Imotz)

Izen hauek hasierako soinuaz batzen baditugu, honako ondorio hau atera genezake:

**ezkametz** edo **eskametz** 6 aldiz agertzen da

**erkametz** 2 aldiz

X. Irigaraik azaldu zidanez, beharbada **erkametz** hitz barnean **erka** erroa aurki genezake, **erka** «arbusto» esan-nahiarekin. Azkueren Hiztegian **erki** = «un arbusto» (B c, G) ikusten baitugu.

Dena dela, Plácido Múgica Berrondok bere *Diccionario Castellano-Vasco* agertu zuenean, 1965ean, «roble de hoja larga, estrecha y pequeña» zelakoari deitzeko goiko nafarrerazko izentzat **ezkametz(a)** hitza biltzen du bere hiztegi horretan.

Beste izen adierazgarri bat aurkitu zuen X. Irigaraik Nafarroako ibar horietan, kasu honetan *Quercus robur*-i deitzeko eta da: (h)**aritz-zintzirra**.

(h)**aritz-zintzirra** Zandio (Olaibar)

(h)**aritz-zintzirre** Gendulain (Odieta)

(h)**aritz-zintzirrie** Ziaurritz (Odieta)

Izen deskribatzaile horren bidez *Quercus robur* eta *Quercus petraea* espezieak ongi bereizten ziren, lehenengoaren ezkurra txorten edo kandu batetik zintzilika izaten baita, bigarrenarena berriz adarñoan bertan jarrita dagoelarik.

Goazen berriro ere **ezkametz** izenarekin. Gauza kurioso bezala eta X. Irigarairen fitxetatik hartuta, Odietako Gendulainen *Quercus pyrenaica*-ri (h) **aritz-ametza**(a) zeritzaten. Normalean **ametza**(a) soilik erabiltzen da Euskal Herrian *Quercus pyrenaica*-ri deitzeko, baina beharbada toki horretan, Gendulainen, Irigarairen informatzaileari hitzen «mixing» edo nahaste bat gertatu zitzaion inguruko **ezkametz** izenarekin.

Botanikaren taxonimiatik euskarazko etimologiara pasatzen bagara orain, **haritz-ametza** eta **ezkametz** izenek gauza bera dioskutela argi eta garbi dakuskegu. Azkueren Hiztegian (1905) **eskanda**, **ezkanda** = «roble joven» / «chêneau», (h)**arizkandaren** bariantetzat hartuta, Zuberoan erabilia. Lhandek bere Hiztegian (1926) onartzen du **ezkanda** izen hori, gehi **haxkanda**, Gotañen erabilia, eta **harixkanda**-ra garamatza aita jesuitak (Azkuerenean **haritxkanda** forma ere agertzen zen, baina eufoniaren aldetik **harixkanda** hobestekoa da).

Lagranen (Arabán) XX. mendean Ezkanda toponimoa aurkitzen dugu. Eta horrez gainera **ezk-** erroak bizirik dirau Euskal Herri osoan gaur egun ere. Horra hor **ezkur** hitza.

**ezkur** = **ezk**-(h)**ur** = **haritz**-(h)**ur** = **harizko** (h)**ur**

Horren antzera,

**ezkametz = ezk-ametz = haritz-ametz = harizko-ametz.**

Badago Plácido Múgicaren Hiztegian beste izen biribil bat, goiko nafarreraz hori ere, **exkamotx** = «roble de hoja rizada y ramas cortas». Nafarroako Asterainen, Iruñetik mendebaldean dagoen hiri horretan adaburu moztua duten *Quercus faginea* espezieko arbolei «arimoches» deritzete. Arabako Munain eta Okarizko mendian Europan dagoen harizti zaharrenetariko bat dago eta horko lekuak *Arimotx* du izen; harizti hori haritzar moztuek osatzen baitute (kasu honetan haritzak *Quercus robur* espeziekoak dira).

Azaldu ditudan arrazoiengatik hiztegitan **ezkametz** hitzari emango nioke lehenatasuna eta ez horren bariantzat har genezakeen **erkametz**-ari.

Nik arakatutako toponimian ez dut aurkitu **ezkametz** izen horren inongo aztarnarik, baina bai Onomastikan; hor dago «Escámez» deitura, Ezkametz euskarazko grafiaz idatzita.

Honekin amaitzen dut honako azalpen hau.

## BIBLIOGRAFIA

- AZKUE, RESURRECCIÓN MARÍA DE. 1905 (I): *Diccionario Vasco – Español - Francés*. Paris, Paul Geuthner (facsimil La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao 1969).
- LHANDE, PIERRE. 1926: *Dictionnaire Basque – Français*. Paris, Gabriel Beauchesne.
- LOINAZ, MIEL ET AL. 1995: *Nekazaritza Hiztegia*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.
- MÚGICA BERRONDO, PLÁCIDO. 1965: *Diccionario Castellano – Vasco*. Bilbao, El Mensajero del Corazón de Jesús.
- RUIZ URRESTARAZU, MANUEL MARÍA. 1973 (Doktore tesia): *Especies Forestales Arbóreas en la Toponimia Vasca*. Madrid, E.T.S. de Ingenieros de Montes (argitaratugabea).